

PROGRAMA: UPV/EHU-LA (Latinoamerika) eta beste norako batzuk



Ikasleen mugikortasuneko programa bat da, Latinoamerikako herrialde batzuekin, Kanadarekin, AEBekin, Europarekin, Korearekin eta Filipinekin garatutakoa.

- **Iraupena: 3, 5 hilabete**
- **Betebekizunak: Helmutako unibertsitateak eskatutako *hizkuntza-maila izatea.***
- **Hautaketa: Espediente akademikoa eta *hizkuntza-maila oinarri izanik.***
- **Plazak:**
 - **Berner Bildungszentrum Pflege (Suiza)**
 - **Plazak: 2**
 - **Latinoamerikako plazak**
 - **Nazioarteko Harremanetako Bulegoak UPV/EHUko ikasle guztientzat eskainitako beste plaza batzuk.**
- **Eskabidea: 3. Maila**
- **Mugikortasuna: 4. maila**

**Ezingo da Gradu Amaierako Lana helmugako unibertsitatean egin*

Informazio gehiagorako:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/latinoamerika-eta-beste-norakoak>

ERIZAINZAKO EUROPAKO MODULUA (EEM) EUROPEAN NURSING MODULE



16 herrialdeko 32 Hezkuntza Erakundetako (Erizaintzako Eskolak) Europako sare baten bidez egiten den programa bat da. Herrialde bakoitzeko 4 Eskolek gehienez parte hartzen dute.

• **Programa honen helburuak hauek dira:**

- ✚ Ezagutza profesionalaren eta osasun-zaintzen dimentsioa nazioartean aitortzea.
- ✚ Diferentzia kulturalak ulertu eta onartzea.
- ✚ Kultura profesionalaren eta rolaen ezagutza garatzea, norbere identitate kulturalaren kontzientzia areagotuz.
- ✚ Faktore historikoek, etikoek, politikoek, ekonomikoek, profesionalek, etab. norbere kulturaren eragiten dutela ulertzea.

• **Iraupena: 15 egun. Ikasturtean zehar bi unetan egiten da, maiatzan eta urrian.**

• **Betebekizunak: Hizkuntza: Ingelesa B2. Kultura eta Osasuna aukerazko ikasgaiak matrikulatuta egotea. Ikasgai hori ingelesez ematen da.**

• **Nori zuzendua: 3. eta 4. maila**

Informazio gehiagorako:

<https://www.enm-network.com/>

VITORIA-GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA

MUGIKORTASUN-PROGRAMAK



Vitoria-Gasteizko EUEk parte hartzen du 1990. urtetik geroztik hainbat mugikortasun-programetan.

Programa horiek ikasleei aukera ematen diete haien ikasketan zati bat beste Unibertsitate batean egiteko, baliokidetasun akademikoa eta lanbide-profilerako egokitzapena bermatuz. Helburua beste unibertsitate-inguru batean prestatzea da. Horrek esan nahi du beste metodologiek in esperimintatzeko, erizaintzako praktikaren beste modu batzuk, beste hezkuntza zein osasun sistemak ezagutzeko, kultura-gaitasuna garatzeko eta abarretarako aukera izango dutela ikasleek. Gainera, beste hiri edo herrialde bateko bizitzan parte hartzeak dakarren gizarte eta kultura ikaskuntzaren prestakuntza-balioa bereganatu ahal izango dute.

NAZIO MAILAKOAK:

SICUE

CRUE (Espainiako Unibertsitateen Errektoreen Konferentzia) osatzen duten Unibertsitate espainolek ezarri dute Espainiako Unibertsitate Zentroen arteko Elkartrukatze Sistema (SICÚE) deituriko ikasleen mugikortasun-programa bat. Horren helburua ikasleei karreraren zati bat beste Unibertsitate batean egiteko aukera eskaintzea da, aitorren akademikoa lortzeko bermearekin.



Ikasleek mugikortasuna eska dezakete haien jatorrizko Unibertsitateak eskainitako plazan arabera. Plaz horiek urtero urtarrilaren eta martxoaren artean argitaratzen dira eta Unibertsitateen arteko aldebiko akordioak sinatuz lortzen dira.

Beraz, elkartrukatze-sistema horrek Erizaintzako Graduak titulazioaren ikasketak ezarritako epealdian kide gisa zerrendatutako Espainiako Unibertsitateetako batean egiteko aukera eskaintzen du, egindako kredituen dagokion aitorpenarekin espediente akademikoan.

- **Iraupena: 3, 5 eta 9 hilabete.**
- **Betebekizunak: UPV/EHU natrikulatuta egotea.**
- **Hautaketa: Espediente akademikoa oinarri izanik.**
- **Plazak: 20.**
- **Eskabidea 3. maila.**
- **Mugikortasuna: 4. maila.**
*Ezingo da Gradu Amaierako Lana helmugako unibertsitatean egin.

• **Helmugako unibertsitatea:**

- **Universitat de Valencia. E.U.E. de La Fe**
- **Universitat Autònoma de Barcelona: EUE Terrasa.**
- **Universitat de Vic. Universidad Central de Cataluña: Facultad de Ciencias de la Salud de Manresa.**
- **Universidad Las Palmas de Gran Canaria**
- **Universitat de les Illes Balears. Facultad de Enfermería y Fisioterapia**
- **Universidad de Huelva. Facultad de Enfermería**
- **Universidad de A Coruña: EUE de A Coruña.**
- **Universidad de Vigo: Escuela Universitaria de Enfermería Povisa**
- **Universidad de Zaragoza. Escuela Universitaria de Enfermería Hospital General Obispo Polanco (Teruel)**
- **Universidad de Castilla-La Mancha: Facultad de Enfermería de Cuenca y Facultad de Fisioterapia y Enfermería Toledo**

Informazio gehiagorako:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/sicue>

NAZIOARTE MAILAKOAK

ERASMUS+

Hezkuntzaren esparruan kooperatzeko Europar Batasuneko programa da. Helburua irakaskuntzan "Europako dimentsio" bat garatzea da; batez ere, hizkuntzen ikaskuntza hobetzeko, ikasleen zein irakasleen mugikortasuna sustatzeko, atzerrian egindako ikasketaldiak akademikoki aitortuz eta



informazio eta esperientzien elkar trukatzeari intentsifikatzeko.

Horretarako, Vitoria-Gasteizko EUEk aldebiko akordioak ditu erakunde europarrekin eta, horien bidez, hainbat ikasle eta irakasle bidali eta hartu daitezke.

- **Iraupena: 3,5 hilabete**
- **Betebekizunak: Helmugako unibertsitatearen hizkuntza-maila izatea. (B1-B2)**
- **Hautaketa: Espediente akademikoa eta hizkuntza-maila oinarri izanik.**
- **Plazak: 12**
- **Eskabidea 3. maila**
- **Mugikortasuna: 4. maila**
*Ezingo da Gradu Amaierako Lana helmugako unibertsitatean egin.
- **Helmugako unibertsitatea:**
 - **Universita degli Studi di Modena e Reggio Emilia. (Italia)**
 - **Escola Superior de Enfermagem de Coimbra. (Portugal)**
 - **Escola Superior de Enfermagem do Porto. (Portugal)**
 - **UC Leuven-Limburg (Belgika)**
 - **Tampere University of Applied Sciences (TAMK) (Finlandia)**
 - **University St Kliment Ohridski (Ipar Macedoniako Errepublika)**

Informazio gehiagorako:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-ikasketak>